

egunekoa

Alberto Frias

(Eguzkiko kidea)

Garroña: noiz arte?

Zoritako zentral nuklearra ixtea onartu ondoren, «lehenengo belaunaldikoa» deritzenetako zentral nuklear bakarra geldituko da Espainian: Santa Maria Garroñakoa. Zentral hori Euskal Herriko mugatik oso gertu dago, 4 kilometro eskasera, eta 60ko urteetako teknologia du (Harrisburgen edo Txernobilen aurkitutako akatsak baino lehenagokoa), batere fidagarria ez dena: Mark-1 euspen sistema primarioa, ur irakineko erreaktorea edo ura zuzenean Ebro ibaitik hartzen duen hozte modua.

Garroñako zentral nuklearra 1971n lotu zen sarearekin, eta bere jarduera 2009. urtea arte dauka luzatuta, datu guztien arabera 25 urteko bizitza baliagarria izango zuela zirudien arren. Eta hala, hainbat arazoren ondorioz (Zoritakoarekin batera izan ditu), ale-arteko korrosioaren ondorioz adibidez, materialen higadura eragiten baitu, pitzadurak sortu dira erreaktorearen ontziaren barruan 1994. urtetik, hain zuzen ere aipatu onzi horretako 97 sartzetatik 66tan. Hondakin erradioaktiboen bilgunea egiazko ezkutuko hilerri nuklear bat da, duela zenbait urte bete egin zena, ia-ia kolapsatzeraino, eta egoera zertxobait hobetzeraren astakeria handiak egin dira, hala nola lehorrean biltegitratzea edo errausteko planta bat eraikitzea hondakinen kopurua gutxitzeko.

Eraiki zutenetik iragandako denboran, 30 urtetik gora, ez du batere bide samurrik izan. Segurtasun Nuklearerako Batzordeak berak egiaztatu du isotopo erradioaktiboak daudela (Zesio-137 eta Kobalto-60) Ebro ibaiko arrainetan, landare urtarretan eta sedimentuetan, eta horrek agerian utzi baino ez du egiten hainbestetan ezkutatatu nahi izan dutena, behin eta berriz milaka litro ur kutsatuk (400.000 litro baino gehiago datu ofizialen arabera)

ZENTRALA

Euskal Herriko mugatik oso gertu dago, eta 60ko urteetako teknologia du (Harrisburgen edo Txernobilen aurkitutako akatsak baino lehenagokoa)

GARROÑAKO ARAZOA

Guztiz gainditzen du alderdi tekniko hutsa, edo energia hornikuntzaren eztabaida, eta profilaxi demokratiko hutsaren esparruan kokatzen da

ihes egin diela, eta ureztatze sailetan eragin zuzena izan dutela Arabako, Errioxako eta Nafarroako Erriberako esparru zabaletan. Gas-isurpenei dagokionez, egoera ez da askoz hobea; zentrala martxan jarri zutenetik gaur egun arte, legez onartutako emisio mugak 600dik 10 milicuriora bitarte jaitsi dira, eta, hala ere, ordudunik zentralaren gainditu dira legezko mugak. Kontuan hartuta erradioaktibitatea metagarria dela, ez da harrizkoa Araban hurbilen dagoen inguruan eta Mirandan batez bestekoa baino askoz handiagoa izatea atzemandako minbizien kopurua.

Bitartean, zentralaren jabea, Nuclear enpresa (Iberdrola da bazkide gehiengoduna), egoera samurtzen ahalegintzen ari da, eta, «lehen belaunaldiko zentrala hirugarren belaunaldikoa izan dadin» hura konpontzeko, gero eta gehiago gastatzen ari dela ikusarazi nahi du, edo, bestela esateko, sinetsarazi nahi digute *seiscientos* bat 1 formulako bolido batekin lehia daite-

keela motorra ukitu gabe (erreaktoreko nukleoa) eta karrozeria apainduta. Zentral nuklearra orain dela zenbait urte amortizatu zen erabat, eta haren bizitza luzatzeak arriskuan jartzen du, besteak beste, zentralaren eragin esparruan bizi garen milioi bat euskal herritarren osasuna, gutxi batzuen interes bastarten mesedetan.

Egoera hau Espainiako hurrenez hurrengo gobernuen baimenarekin sortu ahal izan da; izan ere, elektrizitate enpresa handietako presio taldeek bahituta eduki dituzte, eta batere zantzarik gabe hitzartu dute haien finantza aktiboen luzapena —zentral nuklearrena—, Europako Batasunak energia sektorearen liberalizazioaz emandako arauak betetzea onartzen. Botere ekonomikoen itzala luzea da, eta laburra administrazio kontseiluen eta gobernuen arteko distantzia; hain laburra, non demokrazia inoiz ere ez baita iritsi neutroietaraino.

Garroñako arazoak, gaur egun, guztiz gainditzen du alderdi tekniko hutsa, edo energia hornikuntzaren gaineko eztabaida, eta profilaxi demokratiko hutsaren esparruan kokatzen da. Jadanik ez dute ekologistek bakarrik eskatzen zentrala lehenbailehen ixteko, edo ia gizarte talde eta sindikatu guztiek; aitzitik, mota guztietako erakundeek egin dute bat eskakizun horrekin (Nafarroako Parlamentua, Errioxakoa, Aragoiko Gorteak, Arabako Batzar Nagusiak, ehunka udal...), baina ez diete kasurik egin. Herritar gehienek zabalki adierazi dute zein den beren nahia, baina Espainiako Gobernuak oraindik ere bahituta dauka, eta laster izango dira 40 urte. Bada garaia neutroien diktadura eta *geure* erakundeen konplizitatea amaitzeko!

Erredakzioan itzulia

zutabea

Bixente Serrano Izko



Sinesgarritasuna

Soinu ederra jo izan zuen Ibarretzek. Ez nuela espero aitortu behar dut. Aitortu beharko luketen bezala Jaurlaritzan ez dauden bertze alderdiek. Nago hauek guztiak oinak geldirik harrapatu zituela Lehendakariak. Berdin die, dena dela, beren Konstituzio maitearen urratzaile horiei, terrorismoa elikatzeko itunaren sinatzaile horiei, Cánovas eta Sagastaren jarraitzaile horiei. Jaurlaritzaren proposamen bati izan ezik, hau euren oinetan erortzekoari izan ezik, bertze eskaintza guztiei erantzun berbera emateko prest baitaude beti: irain, deskalifikazio eta eskandalu plantaren erantzuna, alegia. Uste nahi dut, ordea, bertze muturrekoen arrapostua jeloskor baten jokamoldeari dago kiola: erneago ibili izan balitz berak proposa zezakeena entzun izan balu bezala kausitu zuen bere burua Otegik, eta ezustean halako *sorpasso* baten biktima sentitu; jelsiak eramanda, ezkongai nahi duen herriaren aurrean lehiakidearen merituak gutxietsi behar zituela pentsatu bide zuen Batasunak. Izan ere, Arnaldok Ibarretxeri irtenbidearen edukia kritikatu baino gehiago, sinesgarritasun falta leporatu egin zion. Baina, Hasier Etxeberriak ongi ikusi duen bezala, zergatik ezin ditugu hartu «bixak eta gaztaia», gaurko Estatutuetatik haratago doan Ibarretxeren proposamena eta ezker abertzale horrek behin eta berriz aldarrikatzen duen benetako naziogintza, gehi, gainera, postrean gazna?

Egia da sinesgarritasun ezarena. Ez bakarrik, halere, EAJren eskaintza izateagatik. EAJ beti zintzo, norabide jakinean eta zuzen ibili izan balitz ere, sinesgaitza izan liteke puertorricoa eredu ustekabeko hau. Baina non dago Batasunak aurkezten duen irtenbidearen sinesgarritasuna? Edo EBk, IUk, EAK, ABk, Aralarrek, Batzarrek, CIUk, ERCK edo BNGk eskaintzen dituztenena? Are, non dago Elkarri bezalako mugimendu batek jorratu nahi duen bakegintzaren sinesgarritasuna? Zutabe honetako letrak ordenatu gura ditudan honek bederen ez du engainatu nahi bere burua. Hemen eta orain, soilik bi proposamen dira sinesgarri: PP-PSOE-Garzón *tandem* horrena eta ETArena. Hauek, bai, sinesgarriak. Baina ez lortu nahi omen dutena lortuko dutelako, baizik eta biek ala biek gaur bai eta bihar ere frogatzen dutelako gai direla bertze guztien bertze edozein irtenbidesaio elkarrekin estropezu eginarazteko abiaburuan bertan.

seiko urrea

Julen Zabalo



Urte baterako mezua

Pasa den astean Ibarretzek egin zuen etorkizunerako proposamenaz denetik esan da, eta beste eredu batzuk bilatu badizkiote ere, niri Belgikaren eredura hurbildu nahi dela iruditzen zait; filosofian, behintzat. Hots, mailaka eta epeka eskumen eta eskubide berriak lortzen joatea, eta, horrela, etorkizuneko Europako Batasunean izaera propioa edukitzea. Halako dinamika batean sartzeko, hala ere, abiapuntu indar-

tsu bat behar da, eta hori da EAEk falta duena, bere legeria guztia, foruen ñabardurarekin, Espainiak utzia edo emana da eta. Abiapuntu hori indartzera etorriko litzateke, hain zuzen ere, Ibarretxeren oraingo proposamena, baina zelan helitzen gara *irteera* horretara?

Ez da errepikatu behar Jaurlaritzak behin eta berriz esan duela aurretik Espainiak ezarrita duen legeria men egingo diola (eta Abuztua eta Irailean ederki fro-

gatu ahal izan da). Beraz, lortu beharreko helburua bikoitza izango litzateke: alde batetik, Gasteizen, oposizio indarren baten laguntza lortzea; eta, bestetik, Madrilen, Parlamentua eta Senatua egitasmoaren ontasunaz konbentzitzea, horiek baitira EAerako egitasmo hori onartu behar dutenak.

Bigarren helburua lortzeko, noski, laguntzailerik okerrera ezker abertzalea izango litzateke, eta horixe da Jaurlaritza honek argi utzi duen gauza bakarretako bat; ezker abertzalearekin hitz ere ez duela egin nahi, alegia. Haatik, zein laguntzaile gehiago eduki lezake autonomia *gehiago* lortzeko egitasmo batek? PSOEren laguntzarik gabe, ezina dirudi helburu biok betetzea, baina nork sinets

dezake PSOEek halakorik onartuko duela?

Ibarretxeren proposamena aurrera egiteko aukerarik gabe jaio da, Ibarretzek berak itxi baitzizkio ateak hasieratik. Are gehiago, badirudi ateak erabatez ixteko modua ere prestatu duela, egitasmoaren amaieran, itun politikoa berria berresteko, herri galdeketa bat iragaritzen baita. Herri galdeketa, ordea, *indarkeriarik eta bazterketarik gabeko jokaleku batean* egin beharko da. Badakigu, beraz, aurretik ere, porrotaren errua nork duen: ETAk, batez ere, eta PPK, konponbidea oztopatzen duelako. Bitartean, urte oso bat, luzagarri, Jaurlaritzako alderdiek, hauteskundeak tartean direla, zer kontatu eta zer eskaini eduki dezaten.